

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jesus Astola Nafarrete

*Legutio, Araba
(1933-2017)*

Aurkibidea



Biografia



“La Cochera” etxean jaio zen. Aita etxekoa eta ama Aramaioko Errotabarri baserrikoa zen; zortzi seme-alaba izan zituzten. 14 urte arte ibili zen eskolan, lehenengo ‘eskola txikian’ eta gero ‘eskola handian’. 18 urterekin Eibarko torlojugintza lantegi batean egin zuen lan urtebetez. Etxera itzuli eta bertan bizi izan da harrezkero, soroak landu eta ganadu eta ardiak zaintzen. 40 urterekin herriko “Condesa” hodi-lantegian lanean hasi eta bertan jardun zuen erretiratu zen arte.

Zintak

LEG-009

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-04-20
- **Iraupena:** 83 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

Pasarteak

1. Gerran etxekoak Gasteizera alde

- **Erref:** LEG-009/002
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:02:20. **Bukatu:** 00:05:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

<p>Jesus eta gurasoak Gasteizera joan ziren gerratean. Ama umedun zegoen eta seigarren umea han jaio zen. Ganaduak Marietako baserri batean utzi eta txerriak gurdian hartuta joan ziren. Bi izeko bertan zeuden neskame eta haiek antolatu zuten bertara joateko dena. Bertarako bidaia ez zen batere erreza izan.</p>

Transkripzioa

- Maria Pilar: Jesus, gerra denporan gure aite ta zu Vitorixara juan ziñen.
- Jesus: Bai, Vitorixara juan giñen.
- A! ihes in zebein?

- J.: Bai, karo!

- M.P.: Hemeti alde ein biher.

- J.: Behixek uztartu ta karru... burdixen hartu familixe guztixe, bost seme-alaba edo sei.

- M.P.: Bost!

- J.: Sei!

- M.P.: Seigarrena tripan. Nik hori entzunda dauket: seigarrena tripan.

- J.: Gerra denporan jaixo zan ta.

- Bai baiña ha jaixo zan Vitorixan.

- Ta Vitorixara fan ziñein, e?

- M.P.: Bai, lagun batzuen etxe batera.

- Ganau ta guzti?

- M.P.: Ez, ganaue ta ez.

- J.: Ganaue ta bai.

- M.P.: Ganauek?

- J.: Ganauek be han Marietan itzi.

- M.P.: A, Marietan?

- J.: Ta txarriek burdixen hartu ta...

- Txarriek be burdixen e?

- J.: Burdixen hartu ta Marietara harek be.

- M.P.: Bai, baserri batera, herri batera.

- J.: Marieta dao hor... presie Ulibarrikue? ba handik ensegida; goratxua.

- Oseake, ganauak-eta han itxi zittuein?

- J.: Bai, ganauak han.

- Zeuek Vitorixara?

- M.P.: Pisure.

- J.: Ta geu Vitorixara, pisu batera. Hemeko andra bat [auen] han ezkondata ta haraxe.

- M.P.: "Apoyo".

- Ta hori, gerriek urten eben momentuen bertan alde iñ zeuein?

- J.: Bai, [...].

- Hogeita hamazortzixen?

- J.: Bai, San Andres egunien dana aurrien apurtzen dabilela hamen ta urten ta hartu burdixe ta erun gintzen.

- M.P.: Ta tiak, tia batek, aiten tia Marik urten eban -auen...- Vitorixara. Harek in otsien /intzien/ apañue dana. Krixeda auen nere aiten arreba bat. Auen krixeda Vitorixan frantsesATEGAZ, emakuma frantsesATEGAZ; oso aberatsa ta andra bakarra. Eta egoten zan "como señorita de compañía". Ta gero, beste aitzie, tia Epi, egoten zan "de cocinera" emakume batendako. Burue juenda auken guztiz ha atsuek, e, kasi ehun urtegez hil zan edo...

- J.: Ehun ta bost urte.

- M.P.: Ehun ta bost? Hoixe ni ez naz akordetan. Ehun ta bost urtegez hil zala. Ta frantsesa zan ha emakumie. Ta harek konpondu ebazen honeik danok eruteko Vitorixara. Ta Gamarran berak urten otsen /urtentzen/ taxisATEGAZ -hori entzunda dauket- umiek hartzeko eta eruteko...

- Gurdittik taxisera pasau?

- M.P.: Klaro, taxisATEGAZ berak urten otsen /urtetzen/ Gamarran. Nire ama negarrez, koitaue! tripa bat... ha tripa haundixegaz. Egon zan egun guztixen -hori entzunda dauket- han Marietan...

- J.: Lukun.

- M.P.: A, Lukun. Lukun, ida pillo baten, bost umegaz.

- J.: Soldau artien ta...

- M.P.: Soldau artien ta ida pillo baten, bost umegaz. Harek abisau arte, ba, etorri [...], ze ez otsen isten pasetan be. Ta nire aitona, aitite edo... "abuelo" esaten otsen, harekin juañen zien ya ama -ze aite geratu zan

hemen ardixekin- ta bueno... abuelogaz joan zien honek txikixok danok.
- Orduen, umiek eta ama eta abuelua fan zien...
- M.P.: Juen zien Vitorixara ta Gamarran urten otsen /urtentzen/...
- Frantses horrek?
- M.P.: Frantsesak ez, tiak. Tiak.
- A! Tiak.
- M.P.: Tiak. Tia zan.
- J.: Aiten arreba bat.
- M. P.: Aiten arreba bat. Gure aiten arreba bat, txikixena.
- Han krixada euena. ezta?
- M.P.: Krixada auena. Harek urten otsen taxis baten, umiok hartzeko taxisien ta eruteko, ba, horren etxera. Legutiokue zan hori, Billerlekue.
- Ta zu oindiok orduen jaioteko, ezta?
- Ni gerra denporan justu-justuen, el treinta y nueve.

2. Ganadua Marietan utzita eurak Gasteizen

- **Erref:** LEG-009/004
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:06:48. **Bukatu:** 00:07:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

<p>Gerra Zibilean ama umedun zegoela Gasteizera joan ziren ihesi, bertan jaio zen Juantxu, beraien neba eta anaia. Ganadua Marietako baserri batean utzi zuten; hori dela-eta, aita joan-etorrian ibiltzen zen.</p>

3. Gerratik bueltan etxea zutik, baina hutsik

- **Erref:** LEG-009/007
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:09:27. **Bukatu:** 00:11:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:

<p>Gerra Zibilean Gasteizera joan ziren ihesi. Bueltan etxea zuloz beteta topatu zuten, baina zutik. Dena lapurtu zien, bueltan lurrean egin behar izan zuten lo.</p>

4. Bonbak etxafuegoak zirelakoan

- **Erref:** LEG-009/009
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:11:34. **Bukatu:** 00:12:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Bonbardaketa batean beraien senitarteko batek bonbak etxafuegoak zirela pentsatu zuen. Ignorantzia handia zegoela diote.</p>

Transkripzioa

-Zuezen a vuelo, eh bonbardeuen ba danon jauzi ta Pedro, Pedro ez dau etxien, nik entzunda dauketez. Pedro nun ete dau.

-Nun ete dau Pedro?

-Nun ete dau Pedro?

-Nora jun ete da?

-Bonardeo baten ta, "nora juaun ete da?" Eta bestie aillegau zan lasai lasai etxera ta eske "entzun dotez txistu batzuk."

-Balak-balak.

-Balak etzun dotez, txistu batzuk.

-Etxafleruek edo gerria...

-Etxafleruak edo...

-Gerria akabauko zon, pentsaten ebalu.

-Horregaitxik harek txistuek entzun be!

-Norantz [...], noraino aillegatzen zan lehen.

5. Don Federico maisua

- **Erref:** LEG-009/011
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:13:33. **Bukatu:** 00:15:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Gerraostean eskolan mutilek maisua izan zuten, don Federico. Euskalduna zen, baina ezin zuten euskaraz egin. Kanean beraien aitonaekin euskaraz egiten zuen eta eskolan eginez gero, jo egiten zieten. Don Federicoren aita beraien aitaren maisua ere izan zen eta baita don Federicorena berarena ere; bere semea lurrera bota eta jo egin zuen zigor modura.</p>

6. Ardiak zaintzen ezin eskolara joan

- **Erref:** LEG-009/013
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:15:39. **Bukatu:** 00:17:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

<p>Jesus hamalau urtera arte joan zen eskolara. Hala ere, ez ziren beti joaten; izan ere, ardiak udaberrian Marietara edo Erretanara eraman behar izaten zituzten. Jesus gauetz emakume batengana joaten zen gau-eskolara, baina beste gizon batek ere ematen zituen gau-eskolak herrian.</p>

7. Eskolaurreko akorduak

- **Erref:** LEG-009/014
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:17:15. **Bukatu:** 00:19:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Maria Pilar hiru urtegaz edo lehenago hasi zen eskolara, maistra galziarrarekin. Gogoan du ume bakoitza alde batean jarri eta bernak igurzten egoten zirela. Gero doña Pilar ere izan zuen maistra.</p>

8. Txirrikitonon istorioa

- **Erref:** LEG-009/017
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:20:45. **Bukatu:** 00:23:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>Txirrikiton basoan bizi zen gizon bat zen. Gizon on-ona da, baina umeak beldurtu egiten ziren, eta amak askotan esaten zien: "Txirrikiton dator zakuagaz bizkarrean".</p>

9. Astoz ardiak batzera

- **Erref:** LEG-009/020
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:26:12. **Bukatu:** 00:29:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak » Artzaintza
- Baserría » Baserríko lanak » Baserríko animaliak

Laburpena:

<p>Etxean artalde handia zuten, 150 ardi ingurukoa. Zazpi-zortzi behi eta astoa. Osaba goizean goizetik joaten zen basora astoz ardiak batzera. Jesus ere askotan joaten zen. Jarindon (Eskoriatza eta Leintz Gatzaga inguruan) izaten zituzten ardiak. Ardiak batu ostean astoa bakarrik bueltatzen zen etxera kantinekin.</p>

10. Astoa oso azkarra da

- **Erref:** LEG-009/022
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:30:15. **Bukatu:** 00:32:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak » Baserríko animaliak
- Baserría » Baserríko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Astoak artaldea zegoen tokirako eta etxerako buelta bakarrik egiten zuen. Astoa oso animalia azkarra da. Behin asto-otzarak mugituta eta jausteko zorian zituen eta bide erdian gelditu zen gainekoa eror ez zedin. Ez zuen behar lagunik, bakarrik ondo moldatzen zen.</p>

11. Gazta laratzeko galdaran berotu

- **Erref:** LEG-009/032
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 00:50:05. **Bukatu:** 00:53:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak » Herrira saltzera, eroñera
- Baserría » Baserríko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Gazta eskuz egiten zuten eta gatzura ere eskuz kentzen zuten. Beraien aitona astoz joaten zen Durangoko plazara gazta saltzera. Aitonak egindako gazta laratzeko galdaran berotzen zuten azkeneko ikutuak emateko eta saltzeko polito jartzeko.</p>

12. Garia ira artean ezkutatuta

- **Erref:** LEG-009/035
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:58:25. **Bukatu:** 01:00:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak » Garia
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Ogia etxean egiten zuten. Errazionamendu garaian, aítak iratan eta behien askatan gordetzen zuen entregatu beharreko garia. Guardia zibilak ira piloaren eta gariaren gainean lo egindakoak dira, azpian garia ezkutatuta zegoela jakin barik.</p>

13. Ohiko jatorduak

- **Erref:** LEG-009/040
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 01:02:44. **Bukatu:** 01:05:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Umeak zirela etxean zer jaten zuten: taloa esneagaz, patatak, babak... Ez zuten aukera askorik, etxean zutenarekin konpontzen ziren. Udan 16 lagun izaten ziren.</p>

14. Argindarra eta ura

- **Erref:** LEG-009/043

- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 01:10:21. **Bukatu:** 01:12:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

<p>Zentral txiki bat zegoen herrian bertan eta handik zetorren argindarra. Sarritan ura falta zen eta argi barik egoten ziren edo indar gutxirekin. Ur arazorik ez dute sekula izan.</p>

15. Lixiba egiten

- **Erref:** LEG-009/044
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 01:12:07. **Bukatu:** 01:13:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

<p>Arropak garbitzeko errepara joaten ziren. Lixiba egiten zuten. Horretaz gain, arropen xaboia eman eta belarretan zabaltzen zuten eta bertan botatzen zien ura behin eta berriro; horrela, arropa zuri-zuri geratzen omen da. Aste guztia pasatzen zuten arropa berarekin.</p>

Transkripzioa

- Erropa garbiketan eta?
- Ah erropa gabiketan errepara.
- Lexibie.
- Lexibie iten zan orduen.
- Lexibie bakizu zer dan?
- Bai, guk Oñatin esatenxok "puxetie".
- Hor ipinten zan hor, karo, atien ipinte eban gure amak barreño haundi bat erropaz bete ta ur beruek, hautsek, eh...
- Ur hotza
- Ur hotza ta ur berue bota ta
- Ur hotza (...) erramu orri batzuk edo ez zenduen ipinten?
- Bai, zozer bai.
- Ez naz akordetan.
- (...) ure pasau eindde gero.
- Eta eta usaiña emoteko arropari.
- Ya, ta gero ni gehixau, hori baiño gehixau, ni hori akordaten naz baiña gehixau zan jabonau etxien eta emote euntzen igual eh, ta errekan bebai. Gero, ortura atate eban bedarrera.
- Eguzkitan zabaldu.
- Eguzkitan zabaldu, jaboiegaz ta eztaitt zelan ziket erropie, erregau ta erregau ta erregau... ta geatzen zan arropie zuri benetan. Eguzkixegaz.
- Entzunda dakot hori bai. Ure bota ta bota.
- Ure bota ez, karo, siketu behar ezkeru jaboie gorritu eiten da ta ziketu ez, sarri. Balde bi ur beti erropa iskiñan ta beti ure botaten.
- Ta beti eh zikatzen zaniene do...
- Zikatu baiño lehen!
- "Botaixok ur apur bat harei (...)".
- Denpora asko, ezta?

- Klaro, egun guztixe.
- Erropak garbitzen lekutara.
- A ver, klaro. Aldatu be ez oin moruen, astero pasate zan erropa bateaz igual; mokuek holan kendu ta mangie gogor- gogor.

16. Artilearekin egindako arropak

- **Erref:** LEG-009/046
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 01:15:19. **Bukatu:** 01:16:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Beraien aitak oso artile fina egiten zuen. Amak galtzerdiak egiten zituen. Artilearekin egindako jertseak ardiekin hotzetan egoten zirenerako egokiak ziren.</p>

Transkripzioa

- Jesus: Ardi...
- Maria Pilar: Uliekin.
- J.: ... uliekin, [iruten da] bat.
- Zeu ibiltzen ziñan?
- J.: Bai. Bueno. aite difuntua lelengo, e. Aitek eiten eban lana ona.
- M.P.: Fiñe eiten eban, oso fiñe.
- J.: [...]
- [...] bueltaka emonda?
- J.: Bai.
- M.P.: Bai. Ta oso lan fiñe eiten eban harek, besterik [ez aben ein]. Eta gero amak galtzetiñek ba berandura arte. Honen gizonari makina bat eitten eutsen /eitentzen/; Santi, Santiri gustau eiten jakozen, Santiri gustau eiten jakozen ardi-lanen galtzetiñek. Nire gizonak ez dau gure baiña. Jersiek be bai iñoz, baiña ez, oso gutxi.
- J.: Jersiek be bai [...].
- M.P.: Bai, baiña...
- J.: Lehen ez auen erroparik be, eta ardixekin igual egon biher egun guztixen Retanan edo Amaritan edo, hotza tragetan, ta, ba, jerse bat ein ona ardi... ardi-uliaz. Etxien. Etxien lanak ein ta. Ta haixek estu samar eiten zabenien, ederto haxie [...].
- M.P.: Berotu, klaro.

17. Mutilek dantzarako ordaindu egin behar

- **Erref:** LEG-009/048
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 01:16:51. **Bukatu:** 01:18:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Domeketan soinu-jotzailea egoten zen herrian. Gramola beranduago

egoten zen. Mutilek hiru pezeta inguru ordaindu egin behar izaten zuten dantza egiteko. Urkiolako San Antonioetara oinez joaten ziren ogitartekoa hartuta. Han dantza egiteko korro desberdinak zeuden eta bakoitzean ordaindu behar izaten zuten.</p>

Astola Nafarrete, Jesus | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-06

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com